

Herririk gabeko hilobi ilegitimoa



Erregearen eguna

Jatorrizko izenburua: *Le jour du Roi*

Egilea: Abdela Taia

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Alberdania

KARLOS DEL OLMO

Abdela Taia idazle marokoarra Frantzian erbestaturik dago Marokoko gizartearen aurrean homosexuala zela aldarrikatu zuenetik. *Erregearen eguna* lanak izan ditzakeen merezimendu literarioez gain, haren ausardiagatik ere eman zion iaz Saint-Germain-des-Prés kafetegiak antolaturiko *Prix de Flore* saria kazetari independente talde batek eraturiko epaimahaiak. Hala, 1994. urtean premia ematen hasi zirenean abiarazitako idazle multzo esanguratsu batera elkartu da; haietatik, orain artekoan, euskaraz Amélie Nothomb besterik irakurtzerik ez badugu ere. Eta zertan datza idazle marokoar honen ausardia? Hassan II.a erregea agerian kritikatzeko ausartu izana; haren erregimen odoltsu eta ankerra salatzeko, parabola moduko bat eratuta: Hassan II.aren alter ego izan litekeen protagonistaren aita —etxeko erregea— biluzik eta negarrez, emazteak lagata, ikusten duen gaztearen desenkantuarena. Dena dela, idazle izan aurretik ere erregimenaren aurka agertzen zen Abdela, eta idazten hasi zenean zentsuraren zigorra jasan zuen arren, denboraren poderioz Hassanen seme Muhammed VI.a erregearen onarpena ere irabazteraino heldu ei da.

Idazlearen laugarren eleberriko parabola hori bitarte dela, Marokoko gizarte hausturaren albiste ematen du, trama bi gazteren arteko harremanen inguruan ehunduta. 1987. urtean Rabatetik Sale herrira doan errepidean, bi gazte Hassan II.aren zain daude, aberatsa bata, pobrea bestea. Aurrenekoa erregeari eskuan muin egiteko aukeratu dute. Haien arteko harreman estua pitzatzen hasita dago horren ondorioz, jeloskeriaren eraginez.

Autobiografia izan ez arren, Abdelak hainbat elkarrizketatan azaldu duena oinarri hartuz gero, bi lagunaren ezaugarrietan eta haien arteko harremanean idazleak txikitari bizi izandako hainbat ñabardura topatuko dugu zentzumen guztiei dei egiten dien eleberririk labur honetan; esaterako, elkarri musu ematean haietako batek besteari igartzen dion kanela zapoaren gaineko aipua. Txiroaren ikasteko irrikan ere asko dago Taia umetan bizi izandakotik. Errege (aita) horren aitzakian antolaturiko kontakizunean, zentzumenen presentziarekin batera, ageri-agerian, sexua: gizonen artekoa batez ere; baina baita gizonen eta emakumeen arteko hartu-emanak ere. Sinesmenak eta sineskeriak ere ez dira gutxirako gauzak Erregearen eguna liburuan ehuntzen diren ekaien artean.

Abdela Taiaren ustez, norberaren burua antolatzea bizitza osoa dirauen eginkizun latz-latza da, eta halaxe igartzen da eleberririk pertsonaien esan-eginetan. Eleberria oso ikusizkoa da, eta ez da harriztekoa, idazlearen egungo nortasuna eratzen zinegile eta film batzuk zeinen garrantzizkoak izan diren ikusita: Viscontiren *Herioa Venezian*, Fassbinder-en *Querelle*, Almodovarren *Desioaren legea*. Bestalde, erraza gertatzen da irakurlearentzat eleberririk honetan beste irakurketa maila bat topatzea: sasoi hartan (soilik?)

Marokoko gizartean aspaldiko tradizioek eta hierarkiek eredutik aldentzen zen pertsonari leporatzen zioten zama astuna, banakoaren askatasuna kezka izan beharrean, hierarkion iraupena besterik ez duten aldetik, gizakia gizakiaren jagole eta salatari bilakatzea besterik gura ez dutelako. Gizarte marokoarrarekin konformidadean bizitzea besteak bezalakoxea izatea da, hipokrita hutsa, borondatez gizarte balio inplizituei atxikitzea. Eta balio horien artean, pobrearentzat ate guztiak itxita egotea dugu. Nola eman aurpegia, bakarka, familiar, botere politikoari eta erlijioari? Zeren zain eta noiz arte egon behar dute gizarte balioekin bat ez datozen pertsonak?

Liburuaren egitura formazkoan denbora da hezurdura, erregearen harako bisitaldi hura gertatu beharreko aldia, baita narrazioan ahots bat baino gehiago sartzeko apukoa ere.

Alberdania argitaletxearen aspaldiko ekanduari jarraiki, itzultzailearen izena ez da azalean agertzen, zenbaitetan hura aipatzea marketin aldetik balio erantsia gerta daitekeen arren, honako honetan legez, esaterako, Patxi Zubizarretak ondo irabazitako itzala baitu euskal irakurleen artean. Patxi mamitu itzulpena argia eta irakurterraza da, beste orrazketa batek erraz ezabatuko zituen laprastadaxo batzuk gorabehera.

Eleberrian agertzen den Hadda neska beltz "ikusezinak" ondo bai ondo laburbiltzen du Taiak erretrataturiko gizartearen beste haustura bat: "Irudipena dut egunen batean hilketa bat egingo dudala (...). Krimena saihesteko, hitz egiten dut. Ahopean hitz egiten dut. Xuxurlaka. Irakurri. Ikusi". Eta segituan, "Jainkoa ez dago hilik. Lotan baino ez dago".